

ARAMA ZAITEZ

3.zenbakia

2014ko ekaina

ARAMAKO BERRIEN BOLETINA



AURKEZPENA

Iritsi da Arama Zaitetz herri boletinaren 3.alea eta aurrekoa gustokoa izango zenutelakoan oraingoan ere herri inguruko albisteak eta beste hainbat gauza kontatzeko asmotan gatoz.

Boletinaren ale honetan, Goierriko Jazzaldia dugu protagonista eta bertako kide den Joseba Basarte Aramarrari egin diogu elkarrizketa, bertan jazzaldiari buruzko informazioa biltzen dugu eta ea uztailaren 4 eta 5ean musikaz gozatzen dugun gure herrian.

Udararekin batera ere, udaleku irekiak iritsi dira herriko haur eta gazte txoentzat, bertan egingo dituzten ekimenen berriak azalduko ditugu. Aurten 31 haur eta gazte dira parte hartu dutenak eta hauekin batera 4 begirale izango dira. Udaleku hauen helburua ondo pasatzea da eta ziur hala izango dela.

Herriko jubilatuentzat ere urtero be-

zala bidaia antolatu da eta aurten Altzagakoek Zugarramurdi ingururako txangoa proposatu dute. Ea ba jendean animatzen den eta uztailaren 12an elkarrekin ondo pasatzen dugun. Animatu eta izena eman!!

Zenbaki honetan beste zenbait eduki ere baditugu; hala nola, herrian egin diren azken lanak eta argiteri publikorako lanak egin behar dituen ELEKTRA enpresaren esleipena.

Azkenik, GURE ESKU DAGO ekimenean parte hartu genuen herritar guztioi ZORIONAK!!

Espero dugu zuen gustokoa izatea ale hau eta ez ahaztu gure sukaldari Anneren errezeta goxo-goxoa irakurri eta prestatzea etxekoei.



AGENDA

Uztailak 2 : Hitzaldia. Elikadura osasuntsua.

Uztailak 4: Goierri Jazz, Ordizian.

Uztailak 5: Goierri Jazz, Araman atsaldeko 18:00etan

Uztailak 12: Jubilatuen bidaia Zugarramurdira

Uztailak 13: Geurea Ikurriña

UDALEKU IREKIAK

Iritsi dira udalekuak herrira!

Ekainaren 23an eman zaie hasiera aurtengo udaleku irekiei eta uztailaren 18rarte luzatuko dira. Bertan 31 haur eta gaztetxo bilduko dira, 3 eta 14 urte bitartekoak, egunero ondo pasatzeko.

Udalekuetako begiraleak Maider, Ander, Itxaso eta Ainhoa izango dira eta 2 taldetan egongo dira banatuta, adinaren arabera, beti ere denak elkarren inguruan ibiliz.

Bertan, ekintza ugari antolatu dituzte: uraren eguna, piraten eguna, San Ferminak, joku desberdinak, eskulanak...

Eta noski, hainbat irteera egiteko asmoa ere badute: Oingu parkera, Legorretara, Zaldibiko putzura...

Beti ere, helburua udalekuetan ondo pasatzea izango da, bizikidetza landuz eta herriarekin harremana indartuz.

Honela ba, hilabete hauetan herria bizi-bizi izango dugu gure haur eta gaztetxoak inguruan ditugula.



ARGITERIA PUBLIKOA

Aramako Argiteri Publikoa hobetzeko eta kontsumoa murrizteko proiektuaren lizitazio publikoa egin da Araman azken hilabeteetan. Bederatzi enpresen proposamenak jaso dira eta horiek aztertu ondoren, Udalak ekainaren 10ean egindako batzarrean, lanak ELEKTRA S.A. enpresari esleitzea erabaki du, 83.499,43 eurotan bez barne. Lanak lehenbailehen hasiko dira eta egin beharreko lanak finantziatzeko laguntza hauek jasoko dira:

Foru Aldundiak %18,6a

Euskal Energia Erakundeak Eve %29a

Gainontzeko zatia %52,4a udalak 2014ko aurrekontuaren kargu finantziatuko du.

HERRIAN AZKENALDIAN EGIN DIREN LANAK

Azken hilabeteetan Ibares auzoko ur zikinen kanalizazioa eraikitzeko lanak egiten ibili gara. Lan hauek Lurkide enpresak burutu ditu eta hurrengo egunetan espero da amaitzea.

Honekin batera, beste hiru etxebizitza gehiagoren ur zikinak jasoak gelditzen dira, horrela etxe bizi-tza gutxiago geldituko direlarik lan hauek burutzeko.

Azkenik, behin Ibaresko lana amaitu ondoren, gure asmoa, Etxeberri baserriko eta Eguzkilore etxeko saneamenduak eraikitzea da. Lan hau burutzeko %90-95 inguruko dirulaguntza Gipuzkoako Foru Aldunditik jasoko dugu.

JUBILATUEN BIDAIA

Usadioari jarraiki, aurtengoan ere uztailaren bigarren larunbaterako jubilatuen bidaia antolatzen ari gara gogorarazten dizuegu. Aurten Altzagakoak ari dira antolatzen txangoa Zugarramurdi inguru aldera.

Beraz, jubilatua bazara eta ondo pasa nahi baduzu, gorde **uztailaren 12a** zure ajendan eta animatu.

Ederki pasako dugu!



GURE ESKU DAGO



Igaro da ekainaren 8an eratu zen GURE ESKU DAGO ekimenak antolaturiko giza katea. Bertan, Iruña eta Durango elkartu ziren eskuz-eskuz 123 km-ko katea osatuz eta Aramako udalak ere, bat egin zuen ekimenarekin prentsa ohar bitartez.

Euskal Herri osoko 150.000 lagun inguru lotu ziren giza katera, horien artean hainbat eta hainbat Aramar geundelarik.

Maiatzaren 31an, ekimenari aldarria egiteko, Aramatik 60 herritar inguruk giza katera bertaratzeko konpromezua hartu genuen. Eta gainera, Beasaingo Katea auzoan gehiago izan ginen elkar esku eman ginenok, beraz guztiz bete dugu erronka erraldoi hau.

Ekimen polita eta arrakastatsua burutu da. Baina, lana ez da bere horretan amaitzen. Hau hasi besterik ez da egin eta beraz elkar gaitezen guztiok nahiz pentsakera desberdinekoak izan, badaukagu eta amankomunean aldarrikatu behar dugun eskubide bat: ERABAKITZEKO ESKUBIDEA.

HAU EZ DA BUKAERA, HASIERA BAIZIK: ZORIONAK GUZTIO!!



ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10 19:32 Ilgora	11 ○	12 Ilbetea	13
14	15	16	17	18	19 14:55 Ilgora	20
21	22	23 17:32 Ilbehera	24	25	26	27 Ilberria
28	29	30	31			

Babespean / Negutegian: Baina, azenorria

EREN

Aire librean: Baina, erremolatxa gorria, azelga, azenorria, arbia, apioa, eskarola

LANDATU

Aire librean: Azelga, erremolatxa gorria, porrua, lonbarda, bruselako aza, aza, azalorea, brokulia, espinaka, letxuga, borraja, arzikoria, ...

Equun egokienak lan bakoitzerako:Fruitua: tomatea, kalabaza piper, babarrun, hazitarakoak...Sustraiä: azenario, arbi, erremolatxa, patata, tipula...Lorea: lorea, girasola, brokuli...Ostoa: letxuga, porrua, eskarola, aza, espinakaATSEDENABeste lanak:

Frutabolétan udako kimaketa egin. Izotz arrisku handiena pasata, hilarren bukaera aldean zitrikoak aldatu.

Ureztaketa zaindu, ahal dela iluntzetan egin. Egunero ureztatzea baino, 2-3 egunean behin ondo busitzea hobe da, bestela landarearen sustraiak lur azalean geratzeko joera izaten dute eta lehortearikito ahulagoak izango dira.

Ureztatzerakoan, saiatu hostoak ez busititzen, onddoak arazoak sortzea eragozteko.

Normalean izurriteek ez dute lan handirik ematen. Hala ere, lehen kimu berriak zaindu eta pulgoia egon ezkerro xaboi potasarekin tratatu.

Hilabete honetan, neguan jasoko ditugun barazkiak landatzen dira. Irailak 15 arte denbora daukaguz, hasi poliki-poliki landaketa piskanaka egiten.

Balarra ontzeko garaia negurako erreserba egiteko.

ASTELEHENA

ASTEARTEA


ASTEAZKENA

OSTEGUNA

OSTIRALA

LARUNBATA

IGANDEA



Babespean / Negutegian: Azenorioa, baina

GREEN

Aire librean: Azenorioa, arbia, eskarola, espinaka, borrajababespean / Negutegian: Azenorioa, baina

Babespean / Negutegian: Azelega

LANDATU

Aire librean: Azelega, erremolatxa gorria, porrua, aza, azalorea, brokulia, espinaka, letxuga, eskarola, borraja, atxiloria, alkaxofa

Equin egokienak lan bakoitzerako:Fruitua: tomatea, kalabaza piper, babarrun, hazitarakoak...Sustraria: azenario, arbi, erremolatxa, patata, tipula...Lorea: lorea, girasola, brokuli...Ostoa: letxuga, porrua, eskarola, aza, espinaka...ATSEDENABeste lanak:

Fruitarboletan begiko txertaketak egin ditzazkegu.

Baratzen uzta garai da. Beroarekin azkar helduko dira barazkiak eta orji ibili haundiegia egin edo pasa ez daitezen.

Neguko landaketarekin jarraitzen dugu.

Aldatutako landareak orji haziko direla bermatzeko, ondo zaindu behariko ditugu, batetik, simaurketa, eta besterik, eta batez ere, ureztapena lehen hazkuntza faseetan ur

eskasiak mautu eain dezake bere etorkizuneko aarapena: brokuli edo azalore on bat lortzeko, esaterako.


Tomatearekin jarraitu indartzeko tratamenduak enaten, eta porrua kontuz harrarekin.

JAZZALDIA**GOIERRIKO JAZZALDIA
2014**

Aurten ere, iaz bezala, Arama eta Ordiziako udalerrietan izango dira kontzertuak, baina badira aldaketa batzuk: batetik, eszenatokiak hiru izatetik bost izatera pasako dira, eta bestetik, jazzaldia egun bakar batean ospatetik bi egunetan ospatzera pasako da.

Kontzertu guztiak dohainik izango dira, eta baita ikusentzu-leak Ordiziatik Aramara eta Aramatik Ordiziarra eramango dituen autobusak.

Iritsi da. Uztailaren 4 eta 5ean Goierriko Jazzaldiaren bigarren edizioa ospatuko da. 2013an ospatu zen lehenengo edizioaren arrakasta eta gero, antolatzaileek kartel interesgarri bat prestatu dute aurtengo Goierriko Jazzaldirako ere.



JAZZALDIA

ARAMA JAZZ kultur elkarteko JOSEBA BASARTE Aramarrari elkarrizketa egin diogu.

Joseba, zer antolatu duzue aurtengo GOIERRIKO JAZZALDIA egitarauaren barnean?

Jazzaldiak uztailaren 4an izango du hasiera. Arratsaldeko 7:30tan, Combo Jazz taldeak Ordiziako Plaza Nagusian eskainiko digu kontzertua, zeina Ordiziako Musika Eskolako ikaslez osatua dago gehienbat, Andoni Arratibel-en zuzendaritzapean. Ondoren, gaueko 11etan, Ordiziako D'elikatuz-en Javier López Jaso-ren kontzertu paregabea izango dugu.

Larunbat arratsaldea, uztailaren 5a hain zuzen ere, ekitaldiz betea datorkigu; izan ere, Aramako parkean kontzertu bikoitz bat izango dugu. Hasteko, arratsaldeko 6tan Victor de Diego saxojole bizkaitarra buru duen hirukotearen (Victor de Diego Trio) kontzertua izango dugu. Hirukote honen bisitarekin, Arama, talde hau beren lan berria den "Tribute" aurkezteko penintsula osoan eskaintzen ari den biraren geldialdietako bat bilakatuko du. Jarraian Miguel Salvador gitarra jolea datorkigu bisitan berriro ere. Portugaleten sortua den gitarra jole honek urteak daramatza jazzarekin harremanetan, eta harreman horren ondorioz, gaur egun euskal jazzaren erreferenteetako bat dugu.

Aramako jardunaldiari amaiera emateko, antolatzaileek DJ Busbu Ordiziarraren saio bat antolatu dute. DJ saio hau ere Araman izango da, baina entzuleek, iaz bezala, Aramako plazara igo beharko dute.

Goierriko Jazzaldia 2014ri amaiera emateko, Ordiziako Barrena Parkean, gaueko 11etan, Llibert Fortuny saxojole katalandarra datorkigu ikuskizun paregabe bat ematera. Llibert Fortuny munduan zehar ibilia da bere musika eskainiaz eta Ordiziara datorren honetan, antolatzaileak ziur daude ikusentzuleak zutik jartzeko moduko kontzertu bat eskainiko duela.

Norentzat dago zuzendua jaialdi hau?

Publiko mota guztiei zuzendua dago jaialdia. Besterik gabe, musikaz zuzenean gozatzeko aukera eskaintzea du helburu jazzaldiak eta horri buruan izanda familiarrean, lagunartean, etab. gozatzeko moduko programa bat eratzen saiatu gara. Gainera, eguraldia lagun badugu behintzat, inguru zoragarriak eskaintzen dizkigu Goierri eta hauek eszenatoki natural perfektu bihurtzen dira.

Ba al du jarraipenik Jazz munduak Goierriko eskualdean?

Goierriko bailaran musikarako tradizioa betidanik izan dugu, eta honetaz beti izan gara kontziente. Baina egia da ere, iazko jazzaldiak izan zuen harrera onak gu geu ere ezustean hartu gintuela. Eta orduan konturatu ginenean Goierriin badela jazz-a maite duen jende asko.

Eta Jazz-a ezagutzen ez duenak, izango al du aukerarik jaialdiaz gozatzeko?

Bai noski!! Ez da dudarik!! Musika maite duen edonork izango du jazzaldiaz gozatzeko aukera, izan ere maila oso altuko musikariak dakartzkigu aurten ere, eta jazz, musika baino ez da azkenean. Izan ere, jazz etiketa bat baino ez da, azken finean, helburua, zuzeneko musikaz gozatzeko aukera izatea da.

Nondik sortu zitzaizuen Jaialdi hau sortzeko ideia? Eta kultur elkartea?

Goierriko Jazzaldia sortzeko ideia, Euskal Herrian gauza askorekin gertatzen den moduan, Araman ospatu genuen lagunarteko bazkari baten bueltan sortu zen. Eta Arama Jazz elkartea jazzaldia antolatzeko sortu genuen, baina honek aldi berean bidea irekitzen digu beste mota bateko kultur ekintzak antolatzeko etorkizunean.

Nola ikusten duzu Aramako herri bizi-tza? Bizitza kulturala?

Oso pozik gaude Araman, baina egia da batzuetan herri bizi-tza biziago bat faltan botatzen dudala. Egia da ere herri txiki bat izanda, denok, eta denok horretan neure burua sartzan dut noski, parte hartu beharko genukeela eta ekarpenak egin behar genituzkeela herria ez dadin "logela herri" batean bihurtu. Bizitza kulturalari dagokionean berriz, iruditzen zait kulturalki herriak baduela mugimendu eta kezka bat, eta eskaintza egokiak dituela izan ditzakeen murriztapenak kontuan izanda. Bestalde, elkarrizketa hau probestu nahi nuke Arama Jazz-eko kideen izenean Aramako herriari orokorrean eta Aramako Udalari bereziki eskerak emateko jazzaldiaren proiektuak hasera-haseratik izan duen harrera onarengatik.

Espero dezagun iazko arrakasta errepikatuko dela. Bizitza luzea opa diogu Jazzaldiari.

ERREZETA IDIAZABAL GAZTA BUÑUELOAK

Anne Otegi, Aramako Toki Alai
Jatetxea



OSAGAIK

250 ml ura

75 gr gurina

5 gr legamia

170gr irin

4 arrautza

200 gr idiazabal gazta birrindua

Ekilore olio frijitzeko

PRESTAKETA

Kaxuela batean ura eta gurina irekiten jarri batera.

Irakiten hasten denean, golpez bota irina eta legamia batera, ondo nahastu.

Pixkat epeltzen denean arrautzak gehitzen hasi banan-banan, bakoitza ondo nahastu dela ziurtatuz hurrungoa bota arte.

Nahastu gazta txikitua.

Berotu ondo olio eltze batean eta frijitu apur txikitik, bakan gutxi batzuk aldi bakoitzean.

Xukatu paperean zerbitzatu aurretik.

Nahi izanez gero saltsa ezberdinekin zerbitzatu daitezke, perretxi-ko saltsa, membrilo saltsa, etab.

LEHIAKETA

3 Letra salda

- Behia
- Antxoa
- Eltxoa
- Gorila
- Lehoia
- Untxia
- Arranoa
- Dortoka
- Izurdea
- Olagarroa
- Amuarraina
- Karramarroa

